

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Aurretik emandako informaziotik abiatuz, maiztasun- eta proportzionaltasun- erlazioetan ohikoak diren elementuak identifikatu eta, haiek eraldatuz, informazio berria sortu prozedura algoritmikoak baliatuz.	<p>1.1. Ikerketa estatistiko bat hasi aurretik zehaztu beharreko elementuak identifikatu ditu (lagina, populazioa, laginketa...).</p> <p>1.2. Laginaren tamaina edo proportzioa kalkulatu du.</p>
2. Ikerketa estatistikoaren emaitzetara iristeko beharrezkoa den informazioa eskuratzeko tresnak diseinatu eta sortu.	<p>2.1. Galdetegiaren sarreraren osagaiak identifikatu ditu eta, haien arabera, galdetegiaren sarrera idatzi edo osatu du.</p> <p>2.2. Galdetegiaren galderak idatzi ditu, eskuratu nahi den informazioa kontuan hartuta.</p>
3. Ikerketaren xedearen baitan, maiztasun- eta proportzionaltasun-erlazioetan parte hartzen duten elementu esanguratsuenak deskribatu matematikaren adierazpen molde desberdinak (adierazpen sinbolikoak, tabularrak eta grafikoak) erabiliz eta azken bi horien sorkuntzarako IKT teknikak baliatuz..	<p>3.1. Maiztasun- eta proportzionaltasun-taula beharrezko informazioarekin osatu du, paperean zein kalkulu-orrian.</p> <p>3.2. Maiztasun- eta proportzionaltasun-erlazioen grafikoa sortu du, beharrezko informazioa adieraziz eta paper euskarria zein kalkulu-orria baliatuz.</p>
4. Hainbat adierazpen moldetan emandako informazioa interpretatuz, ondorioak iragarri eta aieruak formulatu, arrazoi egokiak emanez.	<p>4.1. Grafikoetan eta tauletan emandako informazioa hitzez deskribatu du, emandako irizpideetan oinarrituz.</p> <p>4.2. Bi ikerketetan lortutako datuak konparatu eta interpretatu ditu, informazio egokia baliatuz.</p> <p>4.3. Grafikoetan eta tauletan emandako informazioan oinarrituz ondorioak atera ditu eta informazio berria iragarri du.</p>